

ERRIRIK ERRI BERRIZ

Gure bazterrak edonun doguz begi-
betegarri. Baiña, au zetan esanik be-
re ez, toki hatzuetan obeak, beste ha-
tzuetan baiño. Eder ta zoragarri onei-
tako bat, Berriz, Bizkai'ko erri txan-
benlin aize ozkirritsua. Etzara iñoiz

antzera Berriz'ko gauzen aurrean.
Egia esan, begiko yat erri au, ta ga-
ur beronetzaz zerbait eskini gura
KARMEL'go irakurle maiteai. Or be-
rriztar bat, gizon argia, orrek esang-
daust Berriz'tik zer barri.



Gipuzkoa'tik Bizkai alderuntz, Zal-
dibar'tik zear Durango'runtz etorri?
Nai trenean nai autoan egin oster-
a ori, benetan atsegiña yatzu Berriz'
tik igarotea. Ain dotore agiri da men-
di-tontor jagiz inguratua, artalde zu-
ria dirudi baketsu, larrako bedar e-
zea jaten.

Ni beintzat sarri egon naz zorakor

—Egun on, adiskide. Mesede bat
eskatzan dantzut: gure aldiakari
KARMEL'erako barri billa nabilt-
ta gaur zure erriaz jardun nai nik.
Bere inguruko mendi, auzune, erri-
ka, aleizatxo ta abar maite ditut, eta
oneitaz zer-edo-zer jakin gura neuk.

—Berriz lurraldea naikoa zabala
dozu: sortaldera Mallabi ta Zaldibar

ditu. eguerdira Elorrio ta sarkalde ta
iparraldera Abadiño, Garai ta Zia-
crotxa; inguruz inguru bost legua ba-
ditu. Zabal ta luze menditsua da gei-
nen bat Berriz'ko lurra: Oiz bizka-
rretik ta Udalaiz ta Anboto aurrez-
aurre. Sakonetan, ibar ta aran zaba-
lak be ba-daukaz, solo ta zelai berde
ta emokorrez beterik. Bertoko base-
rritarrak, oso langille diralako, gari,
arto ta ortuaritan zenbat-nai artzen
dabe; bai ta sagar, madari, prisku ta
beste askotariko arnari edo fruta be.

—Sarritan entzun dot emengo an-
drak diru-pillo galantak ekarten da-
bezala hai Eibar'tik, bai Durango'
tik.

—Ez egizu, arren, olakorik esan;
esne, landara, fruta, lore ta abar, di-
ru asko artzen dabe berriztarrak,
baiña ez dantzue olakorik entzun
nai. Batean au dala, bestean ori dala,
okor aundiak be izaten dabez; eta,
intxaurrezatea danean intxaurrea
izango dala, esakun zarrak esan
arren, enlizka baiño ezta egi. Or ze-
gaitik ez yaken atsegin berriztar an-
drai diru asko dakarrela esatea.

—Zuen errekek, aberatsak ei dira
arraiñetan.

—Zerbait izango da. Nik dakida-
na ona: domeka ta jaietan zoko guz-
tiak agiri dira arrantzalez beteta;
batzuk sure ta butroiz, beste batzuk
eskuz uretan sartuta, danak zer-edo-
zeri oratu gura. Batez be iru erreka
ditugu emen, bi Oiz'tik datozenak,
Arria ta Lariz, ta bat Zaldibar alde-
tik datorkiguna; irurok, baiña le-
nengoa ta irugarrena, oso jori ta abe-
rats dira zarho, arrankari, zangurru
ta onakotan.

—Zenbat auzune ditu?

—Sei auzune edo kofradi bai be-

intzat: Andikona, Sarria, Eitua, Mur-
goitio, Okango ta San Lorentzo;
zein baiño zein politagoak dira; alan
be, aintxiñetatik ona, eztabe olako
aurrekada aundirik egin. Gaurkoz
geien azi ta ugaritu dana, len gauza
aundirik etzan Olakueta dogu; az-
kenengo urteotan etxe barririk asko
jaso ditue emen: ziñe-areto eder bat
be bai, oraintxe urte bi.

—Eta guztion erdian?

—Bai, auzune bakotxak dauka be-
re ermita, bere eleizatxoak; baiña
guztion erdian eleiz nagusi eder ga-
lanta, Juan Bateatzaillari eskiña,
an amabigarren gizaldian jaso-
a. 1550'garren urtean, barriztau ta na-
saitu egin eben eleiz au, Oiz'tik eka-
rritako are-arritz; luzeran 136 oin
daukoz, zabaleran 48 ta 80 gora; ar-
ku biko kornua, ta entzute aundiko
erretablua; bai ta torre lerdin bat
be, 1773'garrenan cregia.

—Eta mojen etxea?

—Azken urteotan batez be, Ama
Maturana'k mixiño-kutsua ezarri eu-
tsonetik, ospe aundikoa egin da mer-
tzedetar leikaimetxe au. Martin Agi-
rre-sakonak irazi eban, 1550'garren
urteruntz; eleizea, 1783'garrenekoa
da, ta etxea asko aunditu dabe ur-
teak joan urteak etorri.

—Gizon ospatsurik?

—Ba-dira seta ta zuza leku hera-
ritzkoak; oneitan beste tokietan bai-
ño ugari ta gozoago erne oi dira pe-
rretxikoak. Bardin Berriz'eu be. Be-
ti izan dira (bai ta izango be), gizon
argi, azkar ta garaigoak, beste errie-
tan baiño sarri ta ugariago. Jakitun,
eleiz-gizon trebe, musikari, dantzari
ta abar, konta ezin ala.

—Eskerrik asko, ta beste bat arte.

O.